## UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA

**2016ko ilbeltzaren 29a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamaseigarren urteko ilbeltzaren hogeita bederatzian, asteazkena, ilunabarreko zazpietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguia Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko osoko bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

## SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

**29 de enero de 2016**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 29 de enero del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web del Ayuntamiento.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

Idazkariak adierazi du, zinegotziek dakiten bezala eta akats bat dela medio, 2015eko abenduaren 30eko bilkuraren soinua ez zela grabatua gelditu, eta ondorioz ezin izan da erreproduzitu Udalaren web orrian.

El secretario indica que, como ya saben los concejales y debido a un error, el sonido de la sesión de 30 de diciembre de 2015 no quedó grabado, por la que no pudo reproducirse en la página web del Ayuntamiento.

Lorea Flores zinegotzi andreak adierazi du ez dutela akta onartuko, ez duelako jasotzen bere osotasunean hitz egindakoa.

La concejal doña Lorea Flores señala que no aprobarán el acta, ya que no recoge en su integridad lo que se habló.

Alkate jaunak erantzun dio erranez gauza bat dela akta, non erabakiak jasotzen diren, eta bertzea, ezberdina, grabazioa.

Responde el señor alcalde que una cosa es el acta, donde se recogen los acuerdos, y otra distinta la grabación.

Iritzi-trukearen ondoren, afera bozketara eraman da. Osoko Bilkurak, Geroa Bai-ko zinegotzien aldeko 6 botoekin eta EH Bildu-ko bortzen abstentzioarekin, onartu du azken bilkurako akta, 2015eko abenduaren 30ekoa.

Tras un intercambio de opiniones, se somete el asunto a votación. El Pleno, con los seis votos a favor de los concejales de Geroa Bai y la abstención de los cinco de EH Bildu, aprueba el acta de la última sesión, celebrada el día 30 de diciembre de 2015.

**2 – JUAN CARLOS APEZTEGUIA OCHOTECOK ESKATURIKO OIHAN APROBETXAMENDUA**

**2 – APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JUAN CARLOS APEZTEGUÍA OCHOTECO**

2015eko abenduaren 30ean aurkezturiko eskaera aztertuta (3.615. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), osoko bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

Examinada la instancia presentada con fecha 30 de diciembre de 2015 (entrada nº 3.615 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Juan Carlos Apezteguia Ochoteco jaunak eginiko eskaera, entresaka bat egiteko iharturiko pinuak kentzeko, 27.000 m$^2$-ko lur-eremu batean daudenak, Dindurrea parajean. Honako lurzatiei dagokie: 15. lurzatiaren T azpilurzatiari, 187. lurzatiari eta 218. lurzatiaren A azpilurzatiaren zati bati, horiek denak

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Juan Carlos Apezteguía Ochoteco para realizar una entresaca destinada a la retirada de pinos secos en un terreno de 27.000 m$^2$, ubicado en el paraje de Dindurrea. Corresponde a las siguientes parcelas: subparcela T de la parcela 15, parcela 187 y parte de la subparcela A de la

katastroko 10. poligonoan daudenak (aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2015/31.

2 – Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Horretarako, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3 – Sustatzaileari jakinaraztea finka horietako zati bat komunal agertzen dela udal katastroan, eta, horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten aipatu lur-eremu horien jabetzari buruz.

**3 – ZUHAITZAK KIMATZEKO FRANCISCO JAVIER OLAECHEA AYESTARAN-I EMANIKO BAIMENAREN LUZAPENA**

Lesakako Udalak, 2013ko apirilaren 19an eginiko osoko bilkuran, baimena eman zion Francisco Javier Alzugaray Ayestaran jaunari

parcela 218, situadas todas ellas en el polígono 10 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2015/31).

2°) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3°) Comunicarle que parte de las fincas figuran como comunales en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

**3 – PRÓRROGA DE LA AUTORIZACIÓN CONCEDIDA A FRANCISCO JAVIER OLAECHEA AYESTARÁN PARA TRASMOCHAR ÁRBOLES**

El Pleno del Ayuntamiento de Lesaka, en sesión celebrada el día 19 de abril de 2013, autorizó a don Francisco Javier Olaechea Ayestarán para que

Maldameako lursailean dauden pago eta haritzak kimatzeko. Lursail hori Lesakako komunalerako gelditu zen eskatzailearekin sinaturiko herri ondasunen transakzio-hitzarmenaren ondorioz.

2015eko abenduaren 29an aurkezturiko eskaera baten bitartez (3.594. sarrera Erregistro Orokorrean), Olaechea jaunak eskatu du baimen hori luzatzeko 2019ko apirilaren 19a arteraino.

Udaleko Mendiko Batzordeari, ilbeltzaren 4an eginiko bileran, iruditu zitzaion epe hori luzeegia dela eta proposatu zuen urte batean murriztea.

Hori dena ikusita, osoko bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1 – Baimena ematea Francisco Javier Olaechea Ayestaran jaunari pagoak eta haritzak kimatzeko, Maldameako lursailean daudenak.

2 – Aprobetxamendu horrek amaituta egon beharko du 2018ko apirilaren 19a baino lehen. Behin arbolak kimatzen direnean edo epe hori pasatuta egin gabe, arboladiaren jabetza oso-osorik Udalaren eskura pasako da.

trasmochara las hayas y robles situados en la finca de Maldamea, que quedó como propiedad del comunal de Lesaka a consecuencia del convenio transaccional de bienes comunales suscrito con él. El plazo fijado para hacerlo era de tres años.

Mediante una instancia presentada con fecha 29 de diciembre de 2015 (entrada nº 3594 en el Registro General), el señor Olaechea solicitó que se prorrogara esa autorización hasta el 19 de abril de 2019.

La Comisión de Montes del Ayuntamiento, en reunión celebrada el día 4 de enero, estimó que ese plazo es excesivo y propuso reducirlo en un año.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Autorizar a don Francisco Javier Olaechea Ayestarán para que trasmoche las hayas y robles, situados en la finca de Maldamea,.

2º) Dicho aprovechamiento deberá estar finalizado para el 19 de abril de 2018. Una vez trasmochados los árboles o bien transcurrido el plazo sin que ello haya sido llevado a cabo, la propiedad del arbolado pasará íntegramente a manos del Ayuntamiento.

**4 – JULIANA ERRANDONEA CELAYETA-RI HERRILUR BAT ERABILTZEKO EMANIKO BAIMENAREN LUZAPENA**

Lesakako Udalak, 1986ko otsailaren 21ean eginiko osoko bilkuran, erabaki zuen Francisco Goya Lasaga eta Jesús Maria Goya Errandonea

**4 – PRÓRROGA DE LA AUTORIZACIÓN CONCEDIDA A JULIANA ERRANDONEA CELAYETA PARA EL USO DE UN TERRENO COMUNAL**

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 21 de febrero de 1986, acordó ceder durante diez años el uso de un terreno

jaunei baimena ematea 264,41 $m^2$-ko lur komunal bat erabiltzeko. Lursail horrek Estazio izeneko etxea, Endarlatsa auzoan dagoena, inguratzen du hiru aldeetatik, espedientean dagoen planoan ageri den bezala.

2002ko abuztuaren 3ko Alkatetzaren 257/2002 zenbakiko ebazpenaren bitartez, baimena eman zitzaien eskatzaileei lur hori erabiltzen segitzeko 2007ko abuztuaren 3ra arte.

2009ko azaroaren 26an Francisco Goya Lasaga jaunak jakinarazi zuen berari zegokion etxe-zatia saldu zuela.

Lesakako Udalak, 2010eko maiatzaren 28an eginiko osoko bilkuran, erabaki zuen eraikinaren jabe berriari, Juliana Errandonea Celayeta andreari, baimena ematea aipatu lur hori prekarioan erabiltzeko 2015eko maiatzaren 28ra arte.

2015/12/29an aurkezturiko idazki batean (3.596. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Errandonea andreak baimena eskatu du lur-eremu hori erabiltzen segitzeko.

Hori dena aintzat hartuta, osoko bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1 – Juliana Errandonea Celayeta andreari emaniko baimena luzatzea, horrela aipatu lur-eremu hori prekarioan erabili ahal izanen du 2020ko abenduaren 31 arte.

2 – Adjudikaziodunari jakinaraztea Udalak edozein unetan lur hori erabili ahal izanen duela, eta eskatzaileak ez duela inolako eskubiderik izanen

comunal de 264,41 $m^2$ de superficie a don Francisco Goya Lasaga y don Jesús María Goya Errandonea. El mismo rodea por tres de sus lados a la llamada casa Estación, situada en el barrio de Endarlatsa, tal y como consta en el plano que obra en el expediente.

Mediante Resolución de la Alcaldía nº 257/2002, de 3 de agosto de 2002, se autorizó a los peticionarios para que siguieran usando el citado terreno hasta el 3 de agosto de 2007.

El día 26 de noviembre de 2009 don Francisco Goya Lasaga comunicó que había vendido su parte proporcional de la casa.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 28 de mayo de 2010, acordó autorizar a la nueva propietaria del edificio, doña Juliana Errandonea Celayeta, para que utilizara en precario dicho terreno hasta el 28 de mayo de 2015.

Mediante un escrito presentado el 29/12/2015 (entrada nº 3596 en el Registro General del Ayuntamiento), la señora Errandonea ha solicitado autorización para seguir utilizando el terreno.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Prorrogar la autorización concedida a doña Juliana Errandonea Celayeta, de forma que pueda utilizar en precario dicho terreno, hasta el 31 de diciembre de 2020.

2º) Comunicarle que el Ayuntamiento podrá hacer uso, en cualquier momento de dicho terreno, sin que la peticionaria tenga derecho a

kalte-ordainik jasotzeko horregatik.

3 – Interesdunari jakinaraztea urtero ezartzen den kanona ordaintzen segitu beharko duela.

**5 – ALDAKETAK BATZORDE INFORMATIBOETAN**

Alkate jaunak proposatu du honako aldaketak egitea batzorde informatiboen osaketan:

Hezkuntza, Kultura, Kirola, Elkarteekiko harremanak, Gazteria, Bestak, Emakumea, Osasuna eta Turismo Batzordea: Batzordeburu: Pedro Apezteguía Alzugaray. Batzordekideak: Esteban Irazoqui Irazoqui, José María Portu Ochoteco, José Luis Echegaray Andueza, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki eta Severiano Txoperena Matxikote.

Mendiko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Batzordea. Batzordeburu: Esteban Irazoqui Irazoqui. Batzordekideak: Pedro Apezteguía Alzugaray, José María Portu Ochoteco, José Luis Echegaray Andueza, Lorea Flores Compains, Oier Iantzi Ordoki eta Severiano Txoperena Matxikote.

Hirigintzako, Ogasuneko, Kontuetako eta Langileen Batzordea. Batzordeburu: José María Portu Ochoteco. Batzordekideak: Pedro Apezteguía Alzugaray, Esteban Irazoqui Irazoqui, José Luis Echegaray Andueza, Lorea Flores Compains, Oier Iantzi Ordoki eta Severiano Txoperena Matxikote.

Hori ikusita, Maider Arrieta zinegotzi andreak galdetu du ea zein diren aldaketaren arrazoiak. Alkate jaunak erantzun dio erranez barne

indemnización alguna.

3º) Indicarle que deberá seguir abonando el canon establecido anualmente.

**5 – CAMBIOS EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS**

El señor alcalde propone que se realicen las siguientes modificaciones en la composición de las comisiones informativas:

Comisión de Educación, Cultura, Deporte, Relaciones con las Sociedades, Juventud, Fiestas, Mujer, Salud y Turismo. Presidente: Pedro Apezteguía Alzugaray. Vocales: Esteban Irazoqui Irazoqui, José María Portu Ochoteco, José Luis Echegaray Andueza, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki y Severiano Txoperena Matxikote.

Comisión de Montes, Agricultura y Ganadería. Presidente: Esteban Irazoqui Irazoqui. Vocales: Pedro Apezteguía Alzugaray, José María Portu Ochoteco, José Luis Echegaray Andueza, Lorea Flores Compains, Oier Iantzi Ordoki y Severiano Txoperena Matxikote.

Comisión de Urbanismo, Hacienda, Cuentas y Personal. Presidente: José María Portu Ochoteco. Vocales: Pedro Apezteguía Alzugaray, Esteban Irazoqui Irazoqui, José Luis Echegaray Andueza, Lorea Flores Compains, Oier Iantzi Ordoki y Severiano Txoperena Matxikote.

A la vista de ello, la concejal doña Maider Arrieta pregunta por las razones para el cambio. Responde el señor alcalde que se trata de una

berrantolakaeta bat dela.

Arrieta andreak adierazi du liberatuta dauden zinegotziak ez direla batzordeetan agertzen. Alkate jaunak erantzun dio erranez dagokion ebazpenean adierazten dela liberatuek nola garatu behar duten haien lana.

Ondoren, bozketa egin da. Alkate jaunaren proposamena onartu da Geroa Bai-ko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EH Bildu-ko bortzen abstentzioarekin.

reorganización interna.

La señora Arrieta señala que los concejales que están liberados no figuran en las comisiones. El señor alcalde responde que en la resolución correspondiente se indica cómo desarrollan su trabajo los liberados.

Seguidamente se procede a la votación. La propuesta del señor alcalde es aprobada con el voto a favor de los seis concejales de Geroa Bai y la abstención de los cinco de EH Bildu.

**6 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Oier Iantzi zinegotzi jaunak adierazi du EH Bildu taldekoak horrela jantzita etorri direla Askapeneko epaiketa dela eta (bortzek

**6 – CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

El concejal don Oier Iantzi señala que los concejales del grupo EH Bildu han venido vestidos así (llevan los cinco una camiseta reivindicativa

erreinbindikazio-kamiseta berdina eramaten dute).

Nola ez den akordio-proposamen bat, ez da bozketarik egin aferaren premiari buruzkoa.

igual) debido al juicio de Askapena.

Como no se trata de una propuesta de acuerdo no se realiza la votación sobre la urgencia para tratar el asunto.

**7 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Ez da inolako galderarik egin.

**7 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se formula cuestión alguna.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamar minutu direnean, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Siendo las diecinueve horas y diez minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.